

Julene Azpeitia lehiaketa



2023. urtea

Argitaratzailea:

Laguntzailea:





JULENE AZPEITIA (1888-1980) Zumaian jaio eta Bilbon zendu zen 92 urte zituela. Maistra titulua lortu ondoren, Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen eta, hemendik, Bizkaiko ikastoletara pasatu zen. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “milla bider jaioko banintzake ere, maistra izango nintzake” aipatu zuen behin baino gehiagotan, izan ere, beren bizitzako ardatz nagusiak *umeak* eta *euskara* izan ziren. 1916. urtean Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Senarrarekin batera Mexikora joan zen eta, han, 1918. urtean, euskaraz idazteari ekin zion.

Itsasoz haraindi lau urte eman ondoren, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoko Traña eta Mendiolako auzo eskoletan jardun zuen 1922tik 1936a arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan behar izan zituen: “amaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean...Orain Durangon bizi naiz nire senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Esanguratsua da 1962an Euskaltzaindiko Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren izenburua: *Euzkera jasotzea erabaki dogu*. Izan ere, Julenek, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea zuen helburu. Arrate Irratiak emititzen zuen *Oiztik Anbotora* irratsaioan hartu zuen parte, besteak beste, Juan Gallastegi apaizarekin eta Eskarne Aromarekin. Irratian, maistra-lanetan edota idazterako orduan, beti, kezka nagusi bat zebilkion buruan: “nola jardun euskara irauarazteko eta berau umeengan biziberritzeko?”

1975. urtean, Gabriel Arestik proposatuta, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen Julene Azpeitia. Bera izan zen lehen emakume euskaltzain ohorezkoa, eta gero, Tene Mujika debarra eta Madeleine Jauregiberri zuberotarra gehitu zitzaizkion.

Julene Azpeitiak argitaratu zituen liburuak: *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* (1920); *Irakurri, Matte* (1932); *Amandriaren Altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974).

<i>Izenburua:</i>	Julene Azpeitia Lehiaketa. 2023. urtea
<i>Azala eta barruko marrazkiak:</i>	Imanol Larrinaga
<i>Argazkiak:</i>	Zalao Fuertes
<i>Argitaratzailea:</i>	Durangoko Udala
<i>Maketazio eta fotomekanika:</i>	Gertu. Oñati
<i>Inprimategia:</i>	Gertu. Oñati
<i>Lege Gordailua:</i>	SS-1424-2014 2023ko azaroa

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....7

Jesica Ruiz Pérez

Herrigintza batzordeko presidentea

IPUINAK

INGALATARREKO KONTAKIZUNAK 12

Elaia Berrojalbiz López

LEIHOAREN BESTE ALDEAN 20

Julen Azkorbebeitia Lois

ZUREKIN BERRIZ ERE..... 26

Lukene Berasaluze Gorritxategi

BERRIRO ELKARTU ARTE..... 36

Ane Arkarazo Zumarraga

NOR NAIZ NI? 44

Jone Berrizbeitia Munitxa

ORRI ZIMURTUAK 54

Ane Falagán Muñoz

AIREPORTUAN 62

Ainhoa Urien Téletxe

OLERKIAK

ZER DA HILTZEA?.....	78
<i>Amets Sanchez Onaindia</i>	
ZALANTZAK.....	82
<i>Paule Barrutia Narbaiza</i>	
BERARENTZAT.....	86
<i>Lore Sanchez Onaindia</i>	
LAPURRETA.....	92
<i>Jone Berrizbeitia Munitxa</i>	
ZOAZ LASAI AMA.....	98
<i>Helena Barrenetxea Fernandez</i>	
EZIN IHARTUKO PERLA.....	104
<i>Mara San Juan Martinez</i> <i>Kimetz Lopez de Etxezarreta Casado</i>	
ZORIONEKOAK GU.....	110
<i>Iñigo Legorburu Arregi</i>	

BERTSO PAPERAK

TXOMINEN GARAIA.....	116
<i>Gorka Foncea Barbarias</i>	
IKASTURTE AMAIERA.....	120
<i>Oier Sarrionandia Turumbay</i>	
TXAKURRA TA LAPURRA.....	124
<i>Iker Foncea Barbarias</i>	
HAMAIAKAK ETA HOGEITA BAT.....	130
<i>Jone Berrizbeitia Munitxa</i>	
BARRENETIK.....	136
<i>Aratz Rivero Elorriaga</i>	
ADARRAK.....	142
<i>Iruri Altzerreka Martinez</i>	

HITZAURREA

Julene Azpeitia emakume ausarta izan zen. Garai oso zailetan hezkuntzaren eta euskararen defendatzaile sutsua izan zen. Durangoko Udalarentzat erreferentea izan da beti. Urte asko daramatzagu Julene Azpeitia lehiaketa antolatzen, izan ere, berrogeigarren edizioa da 2023ko hau. Beraz, zorionak, 40 urte betetzea ospatzeko gertakizuna baita.

Lau hamarkada hauetan milaka lan aurkeztu dira eta ehunka izan dira sarituak. Haurrak eta gazteak, emakumeak eta gizonak disziplina desberdinetan -ipuinak, olerkiak edo bertsoak-, baina denak ilusioz gainezka.

Ziur naiz ezagutuko dituzula aurtengo liburu honetan agertzen diren artista asko, auzotarrak, gelakideak, edo koadrilako lagunak baitira. Denek dute gauza bat amankomunean: euren irudimena askatu dute. Hortaz, eskerrik asko altxor hauek gurekin partekatzeagatik.

Durangoko Udalaren nahia da, Julene Azpeitiak egin zuen bezala, euskara maitatzen jarrai dezazuela, eta lehiaketa hau tresna ezin hobea da horretarako. Parte hartzaile guztiei eskerrak emateaz gain, nire esker ona luzatu nahi diot hezkuntza komunitateari. Ez dezagun ahaztu euskara dela gure kultura eta kultura dela herria bizirik mantentzen duena.

Eskerrik asko eta besarkada bero bat

Jesica Ruiz Pérez
Durangoko alkateordea eta Herrigintza Batzordeko presidentea

Julene Azpeitia
l e h i a k e t a
2 0 2 3



E
U
IPUINAK



ELAIA BERROJALBIZ LÓPEZ

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
- Landako eskola -



INGALATERRAKO KONTAKIZUNAK

Gabonetako gau hotz eta ilunetan, lehengusu-lehengusina guztiok amama inguratu eta ipuin eske hasten ginen. Amama Miren, hala baitzuen izena, tximinia ondoko besaulkian eseri eta istorio alai eta politak kontatzen zizkigun. Baina ez zen beti hala izan. Behin, jada guztiok nagusiak ginenean, istorio guztiz desberdina kontatu zigun:

“Orain dela asko, 1936an, gerra bat egon zen Espainian. Nik 14 urte nituen eta dakizuen bezala, neba-arreben arteko nagusiena nintzen. Gerrarekin batera, gosea, gaixotasunak eta bonbak heldu ziren. Umeak guzti honetatik babesteko, beste leku batzuetara bidali zituzten, Afrikara eta Errusiara adibidez. Niri Ingalaterrara joatea tokatu zitzaidan, neba-arrebeekin batera noski. Itsasontzi handi batean sartu gintuzten; hirurehun ume inguru Ingalaterrara bidean, gauza gutxi batzuk zaku batean sartuta.

Hiru eguneko bidaia egin ondoren, gure helmugara heldu ginen. Komentu baten ondoko zelai batera eraman gintuzten. Barrakoi mordoa zegoen bertan, eta Galiziako beste hiru neska-mutilekin kokatu ginen haietako batean. Nik ingeles apur bat nekien, familia ingelesa zuen auzoko batek irakatsita, eta laster ikasi nuen gehiago. Barrakoiko txikiena bidaltzen genuen ogi bila komentura, *‘Sister, please bread’* esanez. Bost urteko neska

galiziarra zen; neskaitila benetan alaia, baina oso ondo jartzen zuen pena aurpegia. Barrakoi guztiarentzat ogia lortu, banatu eta amen batean jaten genuen.

Nire gauzekin batera, liburu bat eraman nuen: Grimm anaien ipuinak. Hartaz baliatuz inguruko barrakoietakoko ume askori irakatsi nien irakurtzen. Horrek gose gutxiago pasatzen laguntzen zigun, burua okupatuta baikeneukan. Beti gogoratuko ditut penintsulako edozein lekutako aurpegi txiki eta kontzentratu haiek Grimm anaiek jasotako ipuinak deszifratu nahian”.

—Baina amama, zelan ikasi ahal zuten ume guztiek irakurtzen ipuinak euskaraz egonda? -galdetu zion Peruk, lehengusu guztien artean txikienak-.

—Tira, egia da nik beti kontatu dizkizuedala euskaraz ipuin horiek, baina Ingalaterrara eraman nuen liburua gazteleraz zegoen. Nire aitabitxi Pedrok oparitu zidan, Madrilan erosita.

—Aaah!

Amamak kontakizuna jarraitu zuen:

“Ez ziren urte errazak izan. 15 urte bete nituenean lanean hasi nintzen komentu ondoko herrian. Goizez okindegian egiten nuen lan eta arratsaldez herriko jaun baten alaba zaintzen nuen. Nire neba, zuen osaba Kosme, lanean hasi zen ere baserri batean, barrakoiko mutil galiziar batekin batera, bere adina zuen Miguel jatorra. Oso nekatuta bueltatzen ginen kanpamendura, baina lortzen genuen diruarekin, janaria, arropak, eta mantak erosi ahal izan genituen. Egunean zehar Raquelen zaintzapean geratzen ziren barrakoiko txikiak. Raquelek nik baino pare bat urte gutxiago zituen. Lanean hasi nahi zuen ere, baina ezin genituen txikiak hainbeste ordu bakarrik utzi.

Ordurako bazekiten irakurtzen inguruan zeuden barrakoietakoko ume guztiek, baina igande arratsaldeetan lanik egiten ez nuenez, denak eseri eta ipuinak irakurtzen nizkien, haiek isil-isilik entzuten zuten bitartean, nahiz eta istorio guztiak buruz jakin. Une paregabeak pasatu genituen; orain badakizue zergatik kontatzen nizkizuen ipuin horiek txikiak zinetenean; oroitzapen onak ekartzen dizkidate.



IL
-23

1939an gerra bukatu zen. Guk bueltatzeko aukera izan genuen, baina gure kide galiziarrek Ingalaterran geratu ziren, ez zituen familiako inork erreklamatu eta. Itzuli ginenean, gure gurasoak hilda zeudela jakin genuen, baina izeba Ana, gure aitaren arreba txikia, itxaroten geneukan Santanderreko portuan. Frantziara joan ginen berarekin eta bertan pare bat urte igaro genituen. Hala ere, 20 urte nituela jaioterrira bueltatu nintzen. Guztiak antzerako jarraitzen zuen baina nik beste ikuspuntu batetik begiratzen nuen, ume bezala joan eta hamaika esperientzia bizi ondoren bueltatu bainintzen. Herriko bazter bakoitzak gurasoen oroitzapena ekartzen zidanez gero, Arrasatera joan nintzen. Okindegi bat jarri, aitite Julian ezagutu, eta ezkondu egin ginen. Osaba Kosme urte batzuk geroago bueltatu zen Parisen medikuntza ikasi ondoren. Beste ahizpak, izeba Marga eta izeba Lore, Frantzian geratu ziren.

Orain badakizue nire historia. Orain badakizue zergatik egiten dudan hitz hain ondo ingelesez eta frantsesez. Orain badakizue ere, zergatik deitu nituen Miguel, Sara eta Raquel zuen gurasoak, berriro ikusi ez ditudan lagun galiziarren oroimenez”.

Denok isil-isilik geratu ginen, amamak bizitakoan pentsatuz, geure burua bere lekuan jarritz, guk bere egoeran egongo bagina zer egingo genuen galdetuz.

—Segi ohera -amamaren ahots leunak geure burutazioetatik atera gintuen-.

Denak joan zirenean, amama Mirenengana hurbildu nintzen.

—Eskerrik asko —esan nion besarkada batekin batera.

—Zergatik laztana?

—Aurrera jarraitzeagatik, amore ez emateagatik... Zu errenditu izan bazina ni ez nintzateke hemen egongo. Guzti horrengatik ematen dizkizut eskerrak, amama; bihotzez.

Musu eman eta ohera joan nintzen. Amama tximiniaren ondoan eserita geratu zen, begirada galduta, Ingalaterra urrunean agian.



E U
IPUINAK



JULEN AZKORBEZEITIA LOIS

Akzesita 11-12 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



LEIHOAREN BESTE ALDEAN

Bazen behin herri txiki batean Mikel izeneko ume bat. Mikelek ile beltza zuen, begi zabalak eta sudur txikia. Bideo-jokoetan jolastea gustatzen zitzaion.

Gau batean, Mikel ohera joan behar zen. Ohera sartu zenean leihotik zaratak entzun zituen. Beldurtuta zegoen. Leihotik begiratu eta ez zuen ezer ikusi. Mikelek bere irudimena zela pentsatu zuen. Gero eta beldur handiagoa zuen, baina logura zuenez, lokartuta geratu zen.

Bere ametsetan basoan galduta zegoen eta zarata bera entzuten zuen behin eta berriro. Umeen oihu eta negarren nahastea zen eta hotzikarak ematen zituen. Bere inguruan dena ilun zegoen eta eskuekin zuhaitzen enborrak ukitzen zituen nondik joan behar zuen jakiteko. Zarata gero eta hurbilago entzuten zen. Mikelen bihotza oso bizkor zebilen eta eskuetan izerdia nabaritzen zuen. Mikelek zaratengatik urrundu nahi zuen eta korrika hasi zen. Bere aurpegian zuhaitzen adarrak sentitzen zituen eta batek min handia egin zion belarrarian.

Mikel arnasestuka esnatu zen. Urduri zegoenez, gurasoen logelara joan zen. Ama eta aitari izandako amesgaiztoa kontatu zien. Amak semea leihora eramane zuen lasaitzeko eta basoa seinalatuz han ez zegoela ezer esan zion.

—Begira. Hor ez dago ezer txarrik. Natura bakarrik: txoriak, urtxintxak, tximeletak, zuhaitzak,...

Mikel lasaitu egin zen. Bere irudimenak zuen errua. Basoa, oihuak, ... ezer ez zen erreala.

Guztia imajinatu egin zuen.

Umea sukaldera joan eta esnea gailetekin gosaldu zuen. Egunero bezala, irratiko albisteak entzuten ari zen eta amesgaiztoa ahaztu egin zitzaion. Ondoren, komunera joan zen eta aurpegia garbitu zuen. Ispiluan begiratu eta harrিতa geratu zen bertan ikusitakoarekin. Belarrian zauria zuen.



IPUINAK



LUKENE BERASALUZE GORRITXATEGI

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



ZUREKIN BERRIZ ERE

Hemen naiz berriro ere zure aurrean idazten, dena kontatu nahian, baina ezer jakin gabe. Irudipen arraro bat izan nuen, oso berezi bat, orain arte irudikatu ez dudana bat. Ezin dizut esan egitan gertatu denik ezta ez denik, esan ahal dizudan bakarra, nik behintzat ikusi dudala da. Hau dena orain dela bi urte, bere buruaz beste egindako lagun batekin izan da, benetako lagun batekin, beti babestu eta errespetatu nauen batekin.

Ispiluaren aurrean jarri nintzen atzo goizean momentu batez, non bat-batean, nire bizkarraren atzean, niri loturik, bera agertu zen, Miren. Buelta erdi eman eta ispiluari bizkarra ematen nabilela bere begi berde distiratsuetara begiratu nuen, dudana, ez nengoen ziur bera zenik, baina bere irribarre konplizearekin jakin nuen benetan bera zela, dudarik gabe, nirekin zegoen. Beti erabiltzen zuen sudadera grisa zeraman jantzita eta berak margotutako betiko zapatila koloretsuak. Ez zitzaizkidan hitzak irteten eta Mireni besarkada estu bat emateko behartzen ninduen bihotzak, baina hori egin beharrean bere bezalako irribarre konplize batekin erantzun nion, begietatik bi malko gazi irteten zitzaizkidan bitartean. Eskutik heldu nion, estu baino estuago, biharko egun bat egongo ez balitz bezala. Begiak itxi nituen bere eskua sentitu ahal izateko, eta beti bezala, leun-

leuna zeukan, oihal zati fin bat bezala. Oraindik ezin nuen sinetsi bertan zegoenik, ukitu ahal nuenik, ikusi ahal nuenik, eta bere lurrinaren usain gozoa eta freskoa usaindu ahal nuenik. Begiak ireki eta ohartu gabe, gu biok ezagutu ginen kalean geunden.

Negua zen, hotza egiten zuen, ezagutu ginen egunean bezalaxe. Migrazioan joan ezin izan ziren eta izei baten azpian babesten ziren hiru txorien kantu finak entzuten ziren, eta haizeak zuhaitz biluzien kontra talka egiten dueneko soinuak. Urruti zegoen taberna bateko musika entzuten zen eta gu bion artean zegoen isiltasuna nabarmentzen zen. Parke berde baten erdian zegoen banku batean eseri ginen, elkarren ondoan; inor ez zegoen gure inguruan. Gustura geunden biok isiltasunean, ezer esateko beharrik gabe. Momentu horretan, gutxien espero nuenean, beti kantatzen zituen melodia triste eta lasai horietako bat kantatzen hasi zen, bere ahots fin eta lirainarekin. Jada ez nintzen gogoratzen nolakoa zen bere ahotsa, baina bera entzundakoan segituan etorri zitzaizkidan gogora berarekin hitz egindako mila konbertsazioak. Nire burua bere sorbaldan jarri nuen, bere ile kizkur luzeak begiak estaliz, berak atzetik besarkatzen zidan bitartean. Bere berotasuna sentitu nezakeen nire gorputzean, kalean egiten zuen hotzetik babesten ninduen. Oraindik ere hitzak irteten ez zitzaizkidan arren, ahalegin bat egin eta bera galdu izanak emandako mina transmititu nion, eta berak bere buruaz beste egitea nire errua izan ote zen galdetu nion negar malkotan blai.

—Nola izango da zure errua? Ez pentsatu halakorik. -Esan zidan munduko lasaitasun guztiarekin.

Nik ordea nire errua izan zela pentsatzen jarraitzen nuen, eta atsekabetuta burua makurtu nuen.

Mirenekin hitz egiten jarraitu nuen, bera egon ez zen bitartean gertatu ziren mila eta bat gauzetaz, onak zein txarrak. Munduak oso gaizki jarraitzen zuela aipatu nion, bakoitzak nahi zuena egiten zuela eta azkenean dena naturak ordaintzen zuela, gerrak toki guztietatik zeudela eta tratu txarrak ikusten ez ziren tokietan ere bazeudela. Mirenek irribarre ilun batekin burua gora eta behera mugituz erantzun zidan, txintik ere esan gabe. Bere aurpegiak den-dena bazekiela aitortzen zuen. Bere inguruko guztiak ere oso ongi zeudela ere aipatu nion, bera lasaiago gelditzeko, eta gauero-

gauero denek zerura begiratzen zutela kontatu nion, denek uste zutelako Miren izar distiratsu handi bat bihurtu zela eta berari “gabon” esateko. Unibertsitatekoek ere faltan botatzen zutela kontatu nion, batez ere bere umorea eta alaitasuna, eta berak mundua ikusteko zuen bere begirada eta bere adeitasuna. Klasearen erdian zegoen bere mahaia oraindik ere hutsik zegoela, eta bertara begiratzen nuen bakoitzean barrua irauli egiten zitzaidala esan nion.

Hitz egiten emandako hainbat orduren ostean berriro ere isiltasuna nagusitu zen parkearen ertz guztietan, eta isiltasun eroso horrekin batera elur malutak erortzen hasi ziren, astiro-astiro, udazkeneko hostoak bezala, noraezean dantzan. Gainera etortzen zitzaizkigun elur maluta bakoitzak azala erretzen zigun, gure barrua hoztuz, baina gu bertan gelditu ginen, aurrera begiratzen, elkar berotuz. Minutu gutxitan, hamar bat zentimetroko elur geruza sortu zen, eta nik momentu horretan bertan, txikiak ginenean bizitako elur borrokak, elkarrekin egiten genituen elur panpinak eta lurrean sortzen genituen aingerutxoak, baina batez ere elurra egitearekin bakarrik sortzen zitzaizkigun irribarre zabal-zabalak gogoratu nituen. Mireni eskutik heldu eta elurretara bota nuen, bi aldiz pentsatu gabe, eta bost urteko ume txikien antzera jolasean hasi ginen, momentu haiek berriro bizi ahal izateko. Jada ilundu egin zuen eta guk sortu genuen aingeruaren gainean geunden, zeruan zeuden izar distiratsuei begira, arropa guztia blai eginda geneukala. Berari galdera bat egiteko momentu egokia zela iruditu zitzaidan.

—Zein izarretan egoten zara zu? -Galdetu nion berari begira nengoela, irribarre batekin ahoan.

—Fantasia deituriko batean, bigarren izarra, eskuinean, dena zuzen argitzerarte. -Erantzun zidan barrez begiak zerutik kendu gabe.

— “Peter Pan”-en izar berdinean ezta? -Esan nion barrez lehertzen.

Haurrak ginenean egunero ikusten genuen telesail hori, bion gogokoena baitzen. - Orain bai serio jarrita, zergatik joan zinen mundu honetatik? -Galdetu nion berari bizkarra emanda.

Hasieran ez zeukan erantzuteko asmorik, baina nire begietatik irteten ziren malko lodi horiek eta nire aurpegi goibeldua ikusita, dena soltatu eta bere barrua guztiz biluzia utzi zuen.



R-23

—Amak eta nik bakarrik genekien eta ez neukan pentsatuta inori esaterik, baina bueno... -Hasperen luze bat egin zuen.- Nire buruaz beste egin baino egun batzuk lehenago, sendaezina zen eta azkenean hilko ninduen gaixotasun indartsu bat neukala esan zidaten. Ez zidaten heriotza datarik jarri, baina laster izango zela esan zidaten, eta amarekin hitz egin, eztabaidatu eta agurtu ostean nire buruaz beste egitea hoberena zela pentsatu nuen, heriotzaren munstroak nik nahi nuenean eraman nezan.

Zur eta lur utzi ninduen. Momentu batez bihotza lurrera erori eta itsasoaren olatuen artean galduko bazen bezala sentitu nuen, munstro baten ahotik nire tripak joango baziren bezala, eta nire aurrera jarraitzeko indar guztiak beldurrak xurgatuko bazituen bezala. Mirenen albora hurbildu eta besarkada estu bat eman nion, besarkada horrekin nire indar guztiak berreskuratuz.

—Zergatik ez zenidan ezertxo ere ez esan?

—Ez nuen zure sufrimendu aurpegia ikusi nahi.

Horrek den-dena azaltzen zuen. Elurretatik jaiki ginen, gauerdiko hamabiak ematear zeuden, eta Mirenek zerbait esan nahi zidanaren seinalea egin zidan.

—Sentitzen dut baina joan egin beharra daukat. -Esan zidan begirada nigandik kenduz.

—Nora? Zertan? Gelditu nirekin! -Erregutu nion.

—Ezin dut, nire izarrera bueltatu behar dut. -Erantzun zidan ezkerreko begiarekin keinu txiki bat eginez.

—Baina hemen gelditu ahal zara, nirekin, zure familiarekin, mesedez. -Esan nion.

—Gauzak ez dute horrela funtzionatzen. Hildakooi egun bat uzten digute bizitzan daudenak ikusteko, baina nire aukera jada amaitu da.

—Horrek esan nahi du ez zaitudala berriro ikusiko... -Susmatu nuen.

—Jakina ikusiko nauzula, baina zure bizitza guztiz aprobe txatu eta nirera salto egiten duzunean izan beharko da, momentu horretara arte zure oroitzapenetan egongo naiz ni, eta zu nire bihotzean. -Esan zidan bere barruan zegoen bake guztia transmitituz.

—Ez zaitut inoiz ahaztuko. Maite zaitut. -Erantzun nion bihotza hustuz.

Begiak itxi eta besarkada estu-estu bat eman nion, bere bularra nirearen kontra jarriz, arnasarik hartu gabe, negar malkotan hustuta, Miren sentitu ez nuen arte. Momentu horretan begiak zabaldu eta nire etxeko ispiluaren aurrean nengoen, Miren agertu zenean bezalaxe, ez zen ezta minutu bat igaro, goiza zen, eta nik ez nuen ezertxo ere ulertzen.

Orain hau idazten nagoela, egia izan ote zen pentsatzen dut, edo besterik gabe imajinatu egin ote nuen. Nire ustetan benetan gertatu zen. Baina egia esan horrek ez du axola, momentu batez nirekin egon zela baizik, eta ni hiltzen naizenean, bere izarrean, esku zabalik egongo dela ongi etorri bezala besarkada handi bat emateko.

Mila esker denagatik. Laster arte Miren!



E U IPUINAK



ANE ARKARAZO ZUMARRAGA

Akzesita 13 – 14 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -



BERRIRO ELKARTU ARTE

Kaixo, nik Paule dut izena eta orain arte bizi izan dudana kontatuko dizut. Ez pentsa pertsona normal baten bizipen normal bat kontatzera noanik; nire istorioa ez da ohikoa.

Familia txiro batean jaio nintzen eta sei urte nituela etxetik bota gintuzten; kaleko bazter batean bizitzea besterik ez genuen izan. Egun hartatik aurrera ezin izan nuen nire neba urrun sentitu. Beñat zuen izena eta oso babestuta nengoen goizero haren magalean etzanda, egunero asmatzen zituen ipuin apartak entzuten. Nire gurasoak gero eta arraroago sumatzen nituen, batzuetan burua galtzen zutela zirudien. Nire neba jotzen zuten eta ez zioten edateari uzten. Auzotik igarotzen zen jendearen begirada guztiak gure gainean geneuzkan beti eta, desatsegina izan arren, ohituta nengoela esan dezaket. Gizarte zerbitzuak gure egoera ikustean gurasoei gurekin egoteko baimena kendu eta gu umezurztegi batera eraman gintuzten.

Umezurztegirako bidean, Beñat eta bion alboan, emakume nagusi bat zetorren autoan. Oso dotore zihoan jantzita eta Ixone zuen izena. Iritzitakoan, Maitek umezurztegiko toki guztiak erakutsi zizkigun eta arropa berria ere eman zigun. Uniformea jantzi behar genuen. Gogoan daukat nolakoa zen: zuria eta berdea; prakak koadrodunak ziren eta

kamiseta botoi erraldoiz josita zegoen. Ez nuen batere gustuko baina ez neukan beste erremediorik. Dutxa bat hartu, uniforme jantzi eta logelara abiatu ginen. Ohez betea zegoen baina ume bakar bat ikusi nuen gelako izkina batean, beste guztia hutsik zegoen. Ume hark ez zion negar egiteari uzten eta berarengana hurbildu nintzen. Gurasoak faltan botatzen zituela esan zidan. Momentu horretan konturatu nintzen nik ez nuela gauza bera sentitzen eta umezurztegira joateak ez zidala tristurarik eragin.

Afaltzeko ordua heldu zen. Neba eskutik hartuta umez gainezka zegoen mahaietako batera hurreratu ginen. Denbora luze bat generaman jan gabe eta gosez amorratuta geunden; afaria nahiko goxoa zegoen eta gustura errepikatu nituen hainbat platerkada. Jantokitik irten eta logelara joan ginen hortzak garbitu ondoren. Hurrengo goizean, gosaldue ostean, hainbat klase izan genituen; ez nuen eskolara joateko aukerarik izan eta gauza guzti hura berria zen niretzat, eta baita Beñatentzat ere. Horrela igaro ziren egunak umezurztegian: gosaldue, klasera joan, bazkaldu, jolastu, afaldu eta ohera. Goizero jaikitzen nintzen pozarren ohetik, gero eta lagun gehiago nituelako eta haiekin denbora pasatzeko irrikaz nengoelako; baina goiz batean gertatu zena ez nuen espero. Beñat nire ohera hurbildu zen eta eskuan zeraman trapuzko lehoi bat oparitu zidan. Zergatia galdetzeko nengoen baina oraindik gogoratzen dut esan zidana:

—Hau zuretzako da arrebato, egunen batean banandu egiten bagaituzte nitaz gogoratzeko. Hitz horiek ez zitzaizkidan gustatu, ezin nuelako etorkizuna imajinatzen nire neba nigandik urrun egonda; baina trapuzko lehoia bururdi azpian gorde nuen, nire gustukoa baitzen. Umezurztegian igarotako egun horietan ezagutu nituen umeetatik Daylon zen nire lagunik onena. Nire adinekoa zen eta milaka gauza ikasi nituen berarengandik. Bazkaldu ondoren, Maite begira ez zegoela ziurtatuz, egunero joaten ginen sukaldara txokolatzeko pudinga gordeta zegoen armairura. Bakoitzak bi edo hiru lapurtu eta logeletako oheen azpian ezkututzen genituen. Musikako ordua heltzen zenean (irakaslea nahiko despistatua zenez), klasetik ihes egin eta pudinga jaten genuen. Seguru nago bihurrikeria gehiago egiten genituela, baina orain ez ditut gogoan. Denbora igaro ahala lagun asko galdu nituen, familia askok adoptatu egiten zituztelako. Nahiz eta urduri samar egon Daylonek nirekin jarraitzen zuen eta horrekin konforme egotea zen nire aukera bakarra.

Egunak igaro eta igaro... Daylonen laguntasuna modu desberdin batean ikusten hasi nintzen. Haren begirada oso atsegina iruditzen zitzaidan eta batzuetan gorritu egiten ninduen, baina ez nuen zergatia ulertzen. Berak zuen gutzia gustatzen zitzaidan: ile horia eta distiratsua, begi urdinak, aurpegia oreztaz betea... Ezin nuen sinetsi! MAITEMINDUTA nengoen! Eta ez edozein pertsonaz, baizik eta nire lagunik onenaz! Ez nekien nola ezkutatu sentimendu hori eta Beñati kontatu nion. Arrazoia zeukan: Dayloni sentitzen nuena ez banion esaten, ezin izango nintzen haren ondoan gustura egon, baina beldur nintzen Dayolnek pentsa zezakeenaz.

Denbora luze batez ohe gainean eserita pentsatzen egon ostean, erabakia hartu nuen. Daylonengana hurreratu eta dena kontatu nion, gorritzen hasi nintzela sumatu nuen eta burumakur jarri nintzen berak ikusi ez zedin, eta bat-batean berak esandakoak harrিতuta utzi zidan.

—Nik ere berdina sentitzen dut, baina ez dut inoiz momentu egokia bilatu zuri esateko. Paule, nire neska-laguna izan nahi duzu? Ez nuen birritan pentsatu eta baiezkoa eman nion; huraxe izan zen nire egunik zoriontsuena, benetan.

Une hartatik aurrera irribarretsu jaikitzen nintzen goizero. Arratsalde batean, jolas orduan, Maitek berarengana hurbiltzeko keinua egin zidan eskuekin. Maite eserita zegoen bankura joan eta isilpean geratu nintzen esateko zuenaren zain.

—Kaixo Paule, afaldu ondoren etorri zaitetz bulegora zure gauza guztiekin; familia bat daukazu zure zain. Ustekabean harrapatu ninduten hitz horiek eta erantzun nion.

—O-ongi da, Beñati abisatuko diot gauzak batzen hasi dadin.

—Ez maitea, familia zure zain dago bakarrik, Beñat umezurztegian geratuko da. Maitek hori esandakoan milaka malko erori zitzaizkidan begietatik eta oihi ikaragarria atera zitzaidan barren barrenetik: ez nengoen prest Beñat gabe bizitzeko. Korrika irten nintzen jolastokitik eta logelara sartu nintzen negar batean. Orduan, pausu batzuk entzun nituen eta Daylon ikusi nuen nire egoera aztertzen, berak ere Maitek esandakoa entzun zuen eta. Eskutik heldu eta hauxe esan zidan:

—Paule, egunero pentsatuko dut zutaz, eta faltan botako zaitut. Lasai zure neba jakitun da guztiaz, eta laster etorriko zaizu agur esatera.

Orduan nigana gehiago hurbildu eta ezpainenetan muxu eman zidan.



Afalordua heltzean inoiz baino tristeago nengoen. Beñat eta Daylonekin afaldu nuen, eta bukatzerakoan besarkada itzela eman nien. Maite ikusi nuen jantokiko atean nire zain eta Beñatek ateraino lagundu zidan; orduan Daylonek hauxe oihukatu zuen:

—Itxaron! Paule, tori; bidean gose bazara jan ezazu hau. Txokolatego azken pudinga eman zidan eta, eskerrak emateko, nik beste muxu bat eman nion.

Iritsi zen espero ez nuen momentua: Beñat agurtzeko momentua eta Daylonetaz egunero oroitzeko momentua.

Familia berria nire zain zegoen. Autora igo nintzen eta bidean zehar Beñatek egun hartan esan zidana etorri zitzaidan burura.

—Trapuzko lehoia! -Oihukatu nuen-. Mesedez, bueltatu umezurztegira! -Agindu nion nire aita berriari.

Heldutakoan, han ikusi nuen nire neba, trapuzko lehoiarekin. Autoko leihoa zabaldu eta Beñat hurbildu egin zen. Trapuzko lehoia eman eta belarrira esan zidan:

—Gorde ezazu ondo, berriro elkartuko garen arte.

Orain dela hamar urte gertatu zen kontatu dizudan hau eta ez ditut ez Beñat ez Daylon harrezkero ikusi; baina trapuzko lehoia daukat nirekin eta badakit egunen batean nire nebatxo maiteak esandakoa gertatuko dela: berriro elkar ikusiko gara, eta istorio hau lagunen artean kontatzeko anekdota bat besterik ez da izango.



E U
S K A
R A
IPUINAK



JONE BERRIZBEITIA MUNITXA

Irabazlea 15 - 16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



NOR NAIZ NI?

Sarritan geratzen gara ispiluan geure buruari begira. Baina ispiluko isla horrek irudikatzen al du benetan garena? Esango nuke, kristalak proiektatzen duen irudi hori gure eskola baino ez dela, azal-azaleko geruza, garrantzitsua, baina ez ezinbestekoa, liburu baten portada bailitzan. Liburuaren edukia eta mamia dira, gure pentsamenduak eta izaera, gure kezkek, galderak... Eta nik, ispilura begiratu eta nire buruari nor naizen galdetzen diodanean, ez dut ikusten hamabost urteko neskatila bat, baizik eta zirriborroz betetako lientzo bat, pintzelkada bakoitza nire ideia eta gogoeta delarik. Ikusten dudan marrazki hori hainbat atalez eratu dago, eta nahiz eta atal bakoitza guztiz independentea den besteez, denak daude lerro bakar batez lotuta, eta lerro horrek irudikatzen du nire inkontzientea. Argiago esateko, esan liteke nire izatea amaraun handi bat dela, eta armiarma bat, hots, lerroa edo inkontzientea ari dela nire ideia, kezka, galdera eta burutazio guztiak elkarrekin ehuntzen, harik eta osotasun bat lortu arte, alegia, nire izatea eratu arte.

BAT: “zebatarrak”

Euskara, horra barruan darabildan arduretako bat. Makina bat egoera surrealista bizi behar izan ditudan etxeko euskara darabildalako kalean!

Ez didazue sinesten? Hona aurreko batean, nire lagun Aratzekin hizketan nenbilela gertatu zitzaidana, ikus dezazuen zenbaterainoko sinesgaitza bihurtu daitekeen kontua.

Haserre zegoen, ikaskide batek esandako zerbaitegatik edo, eta nik, lagundu nahian, honela esan nion:

—Ez egiozu jaramonik egin horri, txorokil hutse da ta!

Ezetz jakin zer erantzun zidan gure Aratz argiontziak?

—Ai ama, tía, qué dices de un jamón, ez zauz oso ondo, no? Ta gainera txoriak hil, zeba voy a matar yo un pájaro? Ze dinozu, eske ez dotsu ulertzen inork, osea egitozu raro, juen biko zinen al euskaltegi, zeba ez dakizu egiten berba normal.

Besterik ez diagu behar! Nork eta “zebatar” sasijakintsu eta memelo batek euskaltegira bidali ni! Bere euskara ez da ba batere aratza eta purua, Aratz izena badu ere! Hobe Pekotz deitu izan baliole!

Euskara mordoilo hori darabiltenak dira, hain zuzen ere, gehien amorrarazten nautenak, patxadaz hitz egiten jakin ez eta, gainera, inori eskolak ematen hasteko azala daukatenak. A zer nolako etorkizun beltza daukan gure hizkuntzak, hainbeste Ibilaldi, Korrika, eta Euskaraldi eta zertarako? Nire sasoiko neska-mutil gehienenen euskara aditzen baduzue, trakeskeriak eta aldrebeskeriak entzungo dituzue nonahi. Filologoek ez dutela ulertzen orain dela bi mila eta bostehun urteko euskara? Datozela XXI. mendera, “sorioneku” gu eta gure hizkuntza!

Halere, ez dut behin ere sinetsi inor baino euskaldunagoa naizenik, edota inork baino euskara jatorragoa egiten dudanik, eta inoiz ausartu banaiz halakorik pentsatzera, berehala etorri zait armiarma burua makurraraztera: *kontuz hi! Nor uste dun haizela, Axular ala?*

BI: eguneroko bizitza

Aspalditik darabilt buruan galdera hau: posible al da egun oso batez gure herrian euskara hutsez aritzea gaztelaniara jo beharrik gabe? Apustu bat egin dut Barakaldoko lagun batekin. Esan dit bera hamaika aldiz saiatu dela, baina beti purrustadaka bukatu duela. Herri txikietan bizi garenok,

ordea, baiezkoan gaude. Ni bai inuzentea!

Apustu egin dudanez Aitorrekin, orain ezin atzera egin. Frogatu behar diot baietz, posible dela gure herrian euskara hutsez aritzea egun batez. Horrela ba, Durangoko anbulatoriora joan nintzen atzo goizean. Harrerako emakumeak galdetu zidan ze sintoma nituen, inprimaki bat betetzen ari zen bitartean.

—¿Qué te pasa? ¿Tienes fiebre? —galdetu zidan.

—Ba, sekuleko txakur-eztula daukat, eta luzaroan nabil kendu ezinik —erantzun nion.

—Txakurra duzula? Bai, bai, egon lasai, emm... laster pasatzen dizut medikuarekin —esan zidan totalka, larritu aurpegiarekin.

Etorri zen medikua eta eraman ninduen bere kontsultara.

—Nire lankideak ondo ez zaizkizu ulertu, errepikatuko niri? —galdetu zuen, ondo kostata gainera.

—Esan deutset sekuleko txakur-eztule daukadala, baina uste dot ez deustela askorik ulertu, aho bete hagin geratu da eta —errepikatu nion.

—Txakurra, ahoa, eztula, hagina... Begira, nik uste dut zu hemen ez ondo, zu hobe al-bai-ta-ri-an, ulertzen? Al-bai-ta-ri-ra joan, berak sendatu, bale? —bota zidan artaburuak halakoak.

Neu geratu nintzen aho bete haginekin hori entzun nuenean, eta lur jota irten nintzen anbulatoriotik. Benetan penagarria nire saiakera! Lotsagarria izan zen, eta gainera, orain zorretan nago Aitorrekin!

Badatorkit berriro armiarma: *koitadu hori, benetan pentsatu al huen arrakasta izango huela?*

HIRU: ardi beltza

Badut beste kezka bat, nire adineko jendeari lotua dagoena. Gauza bat gertatzen zait nire inguruko pertsona askorekin. Iruditzen zait, berdin-berdinak direla denak. Jakina, bakoitzak badu bere itxura, besteengandik desberdina dena, baina beren amaraunak edo lientzoak konparatzen hasi ezkeru, berehala konturatzen da bat identikoak direla, hari berdinarekin ehunduta daudela edo kolore berdinekin margotuta. Ematen du nire sasoiko jendeak homogeneizazio prozesu bat jasan duela, denak dira molde beretik ateratakoak; kanpotik ederki apainduta, azken modako arropaz jantzita, orrazkera eta makillaje modernoekin hornituta... eta barru huts-



17
-23

hutsak. Gainera, badirudi harro daudela hustasun horretaz, axolagabeak izatea dibertigarria balitz bezala. Ingurura begiratzen dudanean sentitzen dut guztiz lekuz kanpo nagoela, taldeko ardi beltza naizela. Soberan nagoelako sentsazioa izaten dut, ez naizela ondo egokitzen, puzzle bateko pieza akastunaren antzera. Eta, noski, jokatu nuke eurek ere gauza bera pentsatzen dutela nitaz, ez baitago igarlea izan beharrik jakiteko euli zuria baino bitxiagoa naizela eurentzat.

Eta nola ez, armiarmari ez zaio ahaztu bere egitekoa: *agian heu izango haiz bitxi samarra, ez dun uste?*

LAU: “coduching”-a eta enparauak.

Zoritxarrez, niri eta nire belaunaldi osoari suertatu zaigu aldaketa klimatikoaren ondorioak pairatzea. Bazter guztietan entzuten dira albiste etsigarriak: telebistan, irratan, politikarien diskurtsoetan eta beste mila lekutan irentsarazten dizkigute beroketa globalaren inguruko berriak. Energia gehiegi kontsumitzen dugula, inoizko negu beroena bizi izan dugula, karbono isuriak gehiegizkoak direla eta karbono-lorratza gutxitu beharra dagoela. Eta noski, egoerari aurre egiteko agintariek makina bat neurri hartu dituzte eta proposamen batzuk ere egin dizkigute, zein baino zein zentzugabeagoak. Lehenengo, gomendatu ziguten “coliving”-a sustatzea, leku bat partekatzea beste batzuekin, gutxiago kontsumitzeko edo aurrezteko. Esango nuke, hori gehiago dela “co-konpondu hadi ahal duan moduan”, baina tira. Gero, “cowardrobing”-a etorri zen, eta hor hasi zen mundu guztia, arropak partekatzen, berriak ez erostearren. Horra mirarizko beste konponbide bat! Aitorrek dio hori ez dela “cowardrobing”-a, baizik eta “co-txakur txiki barik nagoning”. Eta orain zer asmatuko, eta bota digute goizero egin behar genukeela “coduching”-a, hau da, inorekin dutzatzea ura aurrezteko! Ba nik, beste bat proposatzen dizuet, “cokoteragining”, denak haizea hartzera bidaltzea!

Gerturatu zait armiarma: *pentsatzen al dun barregarria haizela? Zer konponduko dun zozokeria horiek esanda?*

BOST: etortzeko dagoena.

Azkenik, badago nire margolan honetan zuriz dagoen atal bat. Lientzoa hutsik dago, pintura xurgatzeko prest, etorkizuneko esperientzia eta

pentsamenduak gordetzeko zain. Oraindik bururatu ez zaizkidan ideia, kexa eta gogoetak txertatzeko daukat gordeta esparru hau, egunen batean izango naizena islatuko duen txatala baita.

Hara non agertu den armiarma: *hori dun orain arte esan dunan gauza errealista bakarra.*

Horrela ba, bost atal horien batura da buruan darabildana, ni definitzen nauena, ni naizena.

Bukatzeko, utzidazu gomendiotxo bat ematen: hurrengo, zure buruari ispilura begiratzeko diozunean, ahalegindu zaitez zure islatik harago ikusten, eratu ezazu zeure margolan propioa, zeure izatea.



IPUINAK



ANE FALAGÁN MUÑOZ

Irabazlea 17 – 18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -



ORRI ZIMURTUAK

Oraindik ez zen ekaitza baretu. Gaua haserre zegoen. Haizeak ulu egiten zuen adar tartean. Ederki gogoratzen dut gau hura. Isiltasuna ilunabarraren aurreko orduaren kolore zalantzatiaz jabetzen zen nire gelan honela zioten bertsoak idazten nituen bitartean:

AMODIOAREN GAZI-GOZOAK

*Oroimenera itzultzen diren
urrin gozoak,*

*pentsamendua urpetzen duten
gazi-gozoak,*

*hain amodio zintzoa, hain
bihotz inozoa,*

*sutan erretxera kondenatuta
gixajoa.*

*Bere bi itsasargiek astro
gisa dar-dar,*

*nire bihotzak lauhazka oihu
ta deiadar.*

*idazlumak pergamu lakar
gainean negar,*

*gaueko otso basatiek
urrunetik marmar.*

*Haren aztarnak jelatuz,
oneriztez oldoztuz.*

*“Norena ogena?” dio
itxaropenez hustuz,*

*azantzaz, bakarnean emaro
odolgabetuz*

*idoneko gisa zure punizioa
pairatuz.*

*Zauri sakonak ostentzen,
mina izekian*

*su-lamei so, zohardi une
baten peskizan*

*zuhaitz desostatua,
barrunbeak agerian*

*gogoan ditudan laidozko
hitzen ihesean.*

Idazten amaitzean, paper zimur hura esku artean hartu, koaderno hauts-itxura zahar batetik atera nuela gogoratzen dut, eta paperontzira bota nuen gelaren beste aldera, barruan sartu nahian.

Orduak aurrera zihoazen, ekaitzak ez zuen etenik, nire lumak tinta eskatzen zuen garrasika, eta paperontzia gero eta beteago zegoen bola egindako paperez. Haren gainean pilatutako menditxoa erori zenean, goizaldeko seiak jo zuten elizako kanpandorreen, espetxetik ez oso urrun zetzana.

Nire idazmahaiko olio-lanpararen garra itzaltzen hasia zen, eguzkia zerumugatik astiro agertzen zen bitartean. Ihintzez bustitako larrearen usain freskoa soma nezakeen. Gau osoa eman nuen idazten, denboraren nozioa erabat galdu nuen. Begiak ixten nituen tarteka, harik eta amets sakon batean amaitu nuen arte, bertso amaigabe haiek eskuetan nituela.

Bat-batean esnatu nintzen. Euri hotsak leihoko kristalak zipriztintzen zituen, haize bortitzaren eraginez astintzen zenaren hotsak eten zidan atsedena. Begiak irekitzean, mahaiko orri guztiak leihotik zihoazela ikusi nuen, barroteak saihesten airean zebiltzala. Haizeak nora gidatzen zituzten jakin gabe, ez nuen nahi izan idatzi nituen azken bertso haien askatasuna eten. “Orri horiek bezala neuk ere ihes egin ahal izango banu” esan nuen nire golkorako.

Beste garrantzirik eman gabe, burua besoen artean bermatu eta pentsamendu-zurrumbilo batean sartu nintzen, nire askatasuna imajinatuz, maitasuna zer ote izango den zalantzan jarriz, alferrikakoa dela hura esanahi edo sentimendu bakar batera murrizten saiatzea konturaturuz, konbentzionalaren muga apurtzen duen maitasunari buruz amestuz, maitasun askea, bere zentzu posible guztietan, perfekziotik ahalik eta urrunen dagoena mirestuz. Loak hartu ninduen arte, berriz ere.

“Jada denboraren nozioa galdu dut. Ez dakit zenbat gau daramadan askatasuna desiratzen. Ez dut gogoratzen noiz jan nuen azken aldiz eta nire masail hondoratuak burezurraren bila dabilta. Gosearekin batera, oroimena da hiltzen den lehen gauza. Jada ez dut bertso bakar bat idazten. Inork ez dit irakatsi bakarrik nengoela hitz egiten, ezta bizitza heriotzatik babesten ere. Arkatzaren, paperaren eta nire etengabeko logurearen artean orduak pasatzen ditut hauek aprobeztatzeraz ausartuko ez banintz

bezala, badakidalako denbora hau jada ez dela nirea. Koaderno eta luma hau amaitzen direnean amaiera helduko den susmoa daukat. Hau guztia pentsatu ahal izatea kondenatuaren pribilegioa da, esklaboaren pribilegioa da”.


Hurrengo goizeko egunsentian, 6etako ezkilak jota zeuden, eta 7etarako gutxi faltako zen, metalezko soinu bat entzun nuen, gelako ate forjatutik zetorrena. Leiho txiki bat zeukan kristal zeharrargi batekin, pertsona bat haren beste aldean bereizten uzten zuena. Behin baino gehiagotan jo zuten, baina ez nuen oso ondo ulertzen zergatik, atek kristal txiki batez gain sareta bat ere bazuelako kanpoko zaratak entzuteko.

Orduan atea ireki zen, haren bisagra herdoilduek kirrinka egiten zuten bitartean, erortzeko zorian balego bezala. Bombin kapela baten gainean zegoen gabardina ilun batek estaltzen zuen pertsona baten irudia antzeman nezakeen. Lehen begiratuan, gizon ertaina zirudien, eta gelaren barruan sartzen zen poliki-poliki, berarekin zihoan zaindaria atzean utzita. Gero atea itxi zuen. Gabardina erantsi zuen, sonbreruarekin batera, eta emakume ilehori gazte baten gorputz konkortua agerian utzi zuen.

Ezagutu ere ez nuen emakume hura nire aurrean eseri zen, paper zimurtu eta busti bat poltsikotik ateratzen ari zela. Hain sotilki zabaldu zuen, ezen bazirudien eskuizkribu gaizki tratatu hura bere behatzen artean flotatzen ari zela. Orduan buelta eman zion, oso ezaguna zen grafia bat agerian utziz.

—Hausnartzen baino ez nintzen ari. Zirriborroak besterik ez dira. -Harridura disimulatuz esan nuen, nire begirada gelaren beste aldera desbideratzen nuen bitartean, paper zimurtuz betetako paperontzia zegoen tokira.

Erreflexu bat balitz bezala, emakumeak leku berera zuzendu zituen begiak, aulkia jiratur. Orduan, jakin-minez (susmo arin batekin), zutitu eta gelaren izkinarantz abiatu zen zalantzarik gabe. Makurtu egin zen, eta kuboan zeuden milaka paper zimurtuetako bati eutsi zion. Zabaldu baino lehen, begirada jaso eta zuzenean nire eraman zuen. Une batean errealitate beraren konplize izan ginen. Baietz egin nion buruaz, eta neskak, ilusioz beterik, pergamino zatia zabaldu zuen. Isilik irakurtzen zuen bitartean begiratu nion. Txundituta, niregana zuzendu zen, paper haiek bere esku leunen artean zituela.



11-23

—Hemendik atera zaitzaket. -Esan zuen bizkor, paperak begiratzeari utzi gabe.

—Nor zara zu? -Galdetu nion, erantzunaren beldur.

—Mary Westmacott naiz, baina Agatha dei diezadakezu.

—Parkatu, zer? -“Nola liteke?” pentsatu nuen. Liburutegiko apal batean liburuen artean bere izena ikusi izana gogoratu nuen.

—Badakit arraroa dirudiela, baina zugatik nago hemen, Edward.

—Nola iritsi zara honaino? -Galdera gehiegi pasatzen zitzaizkidan burutik.

—Esan dizut, Edward. Zugatik nago hemen, eta batez ere honengatik. -Adierazi zuen, bere begiez paperak seinalatuz.

Zaldi baten trosta entzun nuen kanpoan, galtzada gainean, aurreko gaueko trumoiak bustita. Animaliak hutsik zirudien gurdi bati tira egiten zion. Bat-batean, gelako leihoaren aurrean gelditu zen. Emakumearengana jiratu nintzenean, bere galdera isilaren erantzunaren bila begiratzen zidan. Zalantza egin nuen une batez, baina azken finean ez nekien zenbat denbora igaro ahal izango nuen leku ikaragarri hartan, eta hauxe zen eguzkiaren argia berriro ikusteko aukera bakarra.

—Kanpoan bizitza luzea izango duzu. - Horixe izan zen zulo hartatik atera baino lehen esan zuen azkena.

Edward Bernard Raczyński (1891-1993) Poloniako inbasioan preso sartu zituzten ehunka idazleetako bat izan zen. 7 urte eman zituen espetxean Londresera erbesteratu zen arte, eta han eman zituen azken urteak hain desiratua zuen askatasunean. Gainera, Poloniako erbesteko azken presidentea izan zen. Bere testamentuan, Raczyńskik bere liburutegia utzi zuen Poloniako nazioarentzat.



IPUINAK



AINHOA URIEN TELLETXE

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



AIREPORTUAN

Aireportu batetik ezin duzu oinez atera. Horregatik eskean etor ote zitekeen galdegin zion Ak Bri; autobusa hartzeko beranduegi baitzen, taxi bat inperzonalegia iruditu baitzaio beti eta, gainera, traste asko eta handiegia zekartzan. Dena zen gehiegi. Baina, batez ere, gogoan zen handia. Handiegia Bren begietara, gorputzean ez kabitzeko modukoa. Eta batek ez du Aristoteles irakurritakoa izan beharrik neurritasuna bere horretan bertute bat dela jakiteko, dagoenik eta garrantzitsuena; izatez, orekatzailea.

Urrunetik zetorren A. Bidaia luzea egin denean, hankek puztuta bukatzeko besteko luzea, luzeegia belarrietako presioarentzat eta luzeegia iritsiera ordua noiz helduko zain etengabe erlojuari begiratzen dionarentzat; halakoetan, eskertzekoa ez ezik humanoki beharrezkoa ere izaten da nor edo nor zain izatea aireportuan. Berez baitira leku aseptikoak. Hobe esanda, leku ere ez dira espazio hits hauek. Eta, hala eta guztiz ere, berotzen dira, lekutzen dira, azken eta lehen besarkadetan, joaneko eta iritsierako malkoetan. Gurpildun maleten zaratak eta edozeinena izan zitekeen arren norbaitena den ahots internazional batek etxekotzen du beti garbi dagoen ez-leku hau. Lurzoru txatal bat zikindu orduko prestu baitago garbitzaile bat eta, bat-batean, ezer gertatu ez balitz bezala geratzen

da berriro. Komunetan ere beti dago garbi usaina, aireportuetan inork kakalarririk izango ez balu lez. Hauts kondarrik ez bazterretan. Dotore jantzitako langileak hara eta hona, airean bizi direnak ia-ia. Elegantziaren eta briloaren erresumok. Eta jendea pasoa, beti.

Berezienak egun arruntetako bidaiariak izaten dira, ohiko bezeroak, langileen antzera, haiek ere airean bizi direlako batzuetan. Goizean goizeko hegazkinak hartzen dituzte, eta nahikoa dute motxila txiki bat. Bakarrik iristen dira, erritualera ohituegi daudelako, eta jada ez dutelako abiatze eta iritsierarik transzendentziaz blaitu behar. Batzuek autobus urbanoak hartzen dituzte lanerako, besteek autoaren estresari aurre egiten diete goizero, ba beraiek hegazkinez joaten dira. Kitto.

Egunerokotasuneko bidaiariez gain, badago bestelako jendea. Sekula ez doana pasoa aireportu batera, hegazkin bat hartzea zerbait handia dela badakiena. Jende-klase horrek zirrara sentitzen du ezerezaren erdian eraikitako ez-leku horietan, eta tentuz prestatzen du bidaia. Gutxitan iristen da berandu aireportura, beti sasoiz, goizegi ere bai askotan, eta aireportuko denda garestietan aritzen da denbora-pasa. Dena delako berritasun, dena exotiko, dena txundigarri; pantailetan ageri diren herrialde guztiek aireportuan bertan bat egingo balute bezala.

Jende-klase honetakoa zen A. Horregatik, itzulerako hegazkina baino bizpahiru egun lehenago erabakia zuen nori eskatuko zion bila etortzeko. Tira, bizpahiru egun lehenago esan egin zion. Izan ere, joan zenetik jakin du A-k B-ri eskatuko ziola, mesedez, bere bila etortzeko. Nahiz eta, sakon-sakonean, nahiko lukeena izan B-k berak bere prestutasuna agertzea, A-k ezer eskatu beharrik barik, berez aterako zitzaioela “ilusio ikaragarria egingo lidake aireportura zure bila joateak” bezalako mezuren bat, bihotz eta hosto hegalariz apaindua, esaten ariko balitzaio bezala beraien artekoa bihotzeko lotura izan arren orbelen hegaldien askatasunaren tankerakoa ere bazela. Fantasia gehitxo, aukeran.

Bere buruari ere aitortu ez zion arren, halakoxe mezu baten zain eman zituen aste batzuk A-k. Eta ze kapazidade izan lezakeen pertsonak bere burua engainatzeko, azpijokoetan ibili arren trikimailurik ez darabilela sinesteko. Mezu iradokitzaileak bidaltzen zizkion A-k, B-ri erraztuz bezala irakurri nahi zuen hori idatz zezala. Ez zen iristen baina. Eta azkenerako bere buruari sinestarazi zion B bere egoera berean zegoela; hau da, B



ere desiatzen zegoela bila joan zedin eskatzen zion mezu bat jasotzeko. Desorekatutako harremanetan zailegia da oreka berreskuratzea. Orduan, kuraia erabatekoz eta abangoardiaren bandera bizkar gainean hartuta paparra puzten dutenen antzera, berak erabaki zuen mezua bidaltzea, bazekielako B-k mezu hori jaso nahi zuela, eta ilusioa egingo ziola eta, hartara, pixka bat gehiago gustatuko zitzaiola. Eta fantaseatu zuen B-k berak adinako zirraren egonezina sentitzen zuela iritsiera momentu horrekiko. Beste behin, gehiegi.

Ak bazekien bere burua engainatzen. Denok dakigun antzera, bide batez. Hala ere, denok ez dakigu Ak zekien bezain ongi norbere burua engainatzen ari garenean horrextan ari garela konturatzen. Ondotxo zekien Ak noiz eta nola sartzen zion ziria bere buruari. Kontziente zen, kontzienteegi batzuetan. Gehiegi konturatzen zen egiten zuen guztiaz, eta automatismoaren falta sumatzen zuen askotan. Batzuetan pentsatzen zuen izan zen haur hura izan gurako lukeela berriz: sexu goserik gabea, desira kalkulatu eta autozigortzailerik gabea; gehiegizko drama barik gurako lukeela bizi, bizitzaren kontzientziarik gabe ia. Bizi, bizitzea bera bere soiltasunean gutxi balitz bezala. Umetako garai idealizatueta bueltatu gura luke, eta bere min bakarrak izan zitezela belaunetako urratuak.

Bere buruari gezurra esaten ari zitzaiola jakin bazekien arren, azkenerako, gezur errepikatuek egia bihurtzeko arriskua daukate. Sakon-sakonean, Ak bazekien gezurretan ari zela, bere burua engainatu besterik ez zuela egiten Bren desirak bere erara moldatzen hasten zenean. Urruneko bidaia hartan zegoenean herrimina sartzen zitzaion batzuetan. Ez zen bera bereziki abertzalea, bereziki herrikoia, bereziki ezer ere ez zen. Baina etxera itzultzeko gogo unibertsala da, etxea dena delakoari deitzen badiogu ere. Itzuli ezin zuenez, ahuspez etzan, hondartza besarkatu eta begiak ixten zituen. Aurikularretatik “txosnetako musika” izen generikodun abestien zerrenda bat jartzen zuen. Euskal Rock Erradikalaren builatik trikiti doinu alaietara. Hemendik At taldearen elektronika itsaskorretik txosnagunearen itxiera ordua malenkoniatsu egiten duen Anariren abestietaraino. Tartean zegoen, nola ez, Euskal Herriko fenomeno musikalik handienetako bat izan dena: Berri Txarrak. Gorka Urbizuk kantatzen zion belarrietara: “Esan gezur bat mila aldiz / errepikatu hitzez hitz / handik gutxira ikusi egia bihurtzen”. Tupustean begiak ireki zituen, bere gezurrari egiaren tankera hartzen harrapatu zuen bere burua. Bk ez zuen berarekin egon nahi, ez

zuen berarekin aparteko harremanik nahi. Honezkero, bazekien. Baina, beste apur batean goxatu gura zuen bere fantasia. Kanta aldatu zuen, utz zezatela bakean, utz ziezaiotela bere gezurrarekin bere egia propioak eraikitzen. Anari zeukan xuxurlaka: “dena zure ondoan lo egitearen albo kalteak”. Bazirudien denak ari zirela berari hizketan, denak zirela bere egoeraren jakitun, denek lagundu nahi ziotela, nola edo hala. Zergatik idazten zizkion kantuak ezagutzen ez zuen jendeak?

Pentsamendu solteak idazten zituen mugikorrean bere buruari mezuak bidaltzeko txatean. Egoaren sublimaziorik handiena da norbere buruarekin txat bat edukitzea. Ridikuluaren muga. Ireki zuen, pentsatu baitzuen gogoeta hark bide eman ziezaiokeela beste hausnarketaren baterako, agian, noizbait idatzi ahalko zuela berari zuzenduak ziruditen abestien inguruko zerbait.

Gauza sakratua da hemeroteka. Hantxe aurkitu zituen iraganeko automezuak, eta hilabete batzuk lehenago idatzitakoak piztu zion arreta:

“Zuretzako erauzi dudan lorea leihotik behera
jaurti dut oraintxe.
Hiltzera kondenatu dut lehenengo, zuk bizi berri bat
emango zeniolakoan.
Eta, azkenean, hil ondoren *suizidatuarazi* egin didazu.
Batere kontzientziarik bako lore koitadua.
Kolore bizi-biziak –horiak eta moreak– munduari
erregalatzea
ausaz edo borondatez
zegoen leku horretatik ahalik eta eguzki izpi
eta ur-tanta gehien bereganatzea
beste helbururik gabe.
Gutxi balitz ere!

Bizidunarentzat egon daitekeen ekintzarik *anti*
instintiboena eginarazi diot.
Eta dena zuri lore bat erregalatzearren.
Zuri liburu batean gorde eta


denboraren etenbako joanak
haragi bizitan zen lorea guztiz sikatu arte.
Dena gu bion arteko apeta bategatik.
Eta, azken finean,
biona ere ez izateko
desorekaren beste sintoma bat baino,
geroratu dugun beste gauza bat gehiago,
abandonatuta zahartzera kondenatu dugun kontu bat.

Han dago lorea etxepeko zementu gogorrean.
Han dago lorea
hil berriaren edertasun eta lasaitasunean.
Han dago
bere berezkotasunaren kontra, esan gabe doa.
Bizidunak,
beste edozeren gainera,
bizi egin behar baitu.

Gerorutzen diren kontuek
existitzeari uzten diote.
Modu oso krudel batean,
gainera,
gauzak okerrago eta azkarrago zahartzen baitira
erabiltzen ez direnean”.

Ordurako, beraz, jakin bazekien Bk ez zuela berarekin ezer gura eta, ziurrenik, mantentzen zuen harreman apurra konpromiso hutsez zela. Ondo geratzeko taktika bat. Gatazkak saihesteko estrategia. Lagun eta espazio komun asko elkarbanatzen zituztenez, gutxieneko begirune bati eusteko ahalegina.

Bere etxe berritik atera da B. Bere bizi berritik lehenagoko bizira bueltatzea bezalakoa izan da autoko bidaia. Bezperako jaiko hondarrak han-hor-hemen sakabanatuta utzi ditu. Lagun pila bat gonbidatu zituen,



tartean Arenak ere bai, eta horretxan beldur da, ez ote den A handik edo hemendik kontuaz enteratuko. Herri txikia baita hau, ekipo txikian mugitzen gara. Txikiaren txikiz, itogarrian ere bai batzuetan. Beste behin ere, gehiegi.

Ezetz ez esatearren esan zion baietz Ari, joango zela bere bila aireportura. Muxu bat gehitu zion mezuari, konpromisoz. Zintzotasunari men egin izan balio, okazta egiten duen aurpegitxo bidaliko lioke, halaxe baitzegoen B, bete-bete eginda, Aren gehiegizko gogoek gogogabetuta.

Aireportuan aparkatu eta begiratokira hurreratu da B. Jende mordoa dabil, batez ere aireportua esperientzia berezitat bizi duen jende klasea. Bera bezala. Beraiek bezala. Ez dira baina esperientzia hau era berean bizitzen ari, ezta gutxiagorik ere.

Hegazkinak lur hartu berri du. A desiratzen dago behingoz beso arteetan urtzeko. Aireportuan maitasuna bistaratzeak maitasun bikoitza esan nahiko balu bezala. B ere iritsieren pantailatxoari begira dago etengabe. Ez daude baina momentu beraren zain. Gurako luke Bk oraintxe, adi-adi dagoen pantailatxo horretan, “hegaldia atzeratuta” irakurri, nahiz eta tarte baterako denbora baino ez lukeen irabaziko. Aurreranzko ihesaldian dabil etengabe, esan behar dion hori esateko adorerik ez duelako. Noraino, noiz arte eta zergatik irauten du jendeak?

Hurreratu da A, irribarre zabalaz, zabalegiak, kasurako. Bk ez du ausardiarik bildu, eta esan beharrekoak eztarrian trabatu zaizkio. Begirada, ordea, ezin izan du disimulatu. Isiltasunek berbek baino gehiago hitz egiten dute batzuetan.


Poesiarik gabeko besarkada bat eman diote elkarri. A saiatu da magia jartzen, estutzen, sentitzen, bihotza bihotzari lotzen. Zaila da benetako besarkada bat ematea bietako batek gogorik gabe egiten badu. Badira gauzak elkarrekin egin ezean zentzua galtzen dutenak, eta besarkatzea da horietako bat. Absurdoak ez ezik biolentoak ere bilakatzen dira ekintzok. Aren besarkadak gehiegi estutu du B, bestearen besoen erradioak ito du Bren espazio bitala. Batek hainbeste eta besteak hain gutxi. Batek gehiegi, besteak gutxiegi. Neurri egokiaz gainekoa adierazten duen atzizkia duen edozertaz mesfidantza izatea da onena. Superlatibo absolutuak arrastean sartuta izan, badaezpada. Bestela gainezka egin eta alde guztietatik lehertu dezakete parean harrapatzen duten guztia, dituzten guztiak. Oreka, beste

behin ere.

Bidaiaren kontakizuna da etxerako bidean egongo litzatekeen isiltasunari iskin egiteko aitzakia. Jakin badakite laguntasunaren zeinu gorena dela elkarrekin isilik egon ahal izatea baina, honezkero, harremanaren soka gehiegi tenkatu dute, eta jada lagunak diren ere ez dakite. Bk ez du arazorik bere keinuak disimulatzeko, denboraren eta espazioaren deserosotasun hori eskulanean bidez kudeatzeko. Gidatzen ari da, eta horrek behartzen du arreta errepidean eta bolantean jartzera. Eskuak eta begirada okupatuta ditu. A zigarro bat egiten hasi da. Tabakoa paperean bildu behar izateak entretenitzen ditu bestela traketsak izango ziren keinu mordo bat. Bere bidaiaren nondik norakoak kontatzen ditu, ilusio handiegirik gabe, halaxe ari baitzaio entzuten B. Eta, besarkadekin gertatzen den antzera, ez du zentzurik batek gauzak ilusio handiegiz kontatzeak besteak ilusio txikiegiz entzungo baditu. Kontu batzuk alde bikoak dira edo ez dira. Harremanak ere bai, bide batez. Eta alde bakarrekoezia delako utziko dio existitzeari. Utzi beharko dio Ak bere burua engainatzeari, eta egin beharko dio Bk aurre panoramari.

Luzeegia egin zaien etxerako bidea bukatu da. B ez da kotxetik jaitsi ere egin A agurtzeko. Muxu baldar bi eman dizkiote elkarri masailetan, auto barruan ematen diren muxu behartuen deserosotasun guztiarekin.

Erretiratu da A etxera, eta jada ez du bere burua engainatzeko gogorik ere inon topatzen. Bere burua etengabe fantasiak kontatu dizkionak egia apur bat ere esan gura dio. Eseri eta eskutitz bat idazten hasi zaio Bri baina, jakin badaki, bere buruari idazten diola. Egiatzko deklarazio bat idatzi du, desiraren eta maitasunaren kalkuluak norbere erara diseinatzeari utzita. Otzandu da erabat, otso basatien antzera. Ohantze bat bilatu eta zauriak miazkatuko ditu, inori hurreratzen utzi gabe. Behetik gora begiratuko dio inguruari, egiari begietara begiratu izanak abailduta eta sosegatuta, bi sentsazioak kontrajartzen. Egia gordin baten efektu askatzailea. Bere minen jakitun da, pozen berri ere badu, eta oraindik sinesten du ikastera jaiotzen garela, eta horregatik mantentzen duela nolabaiteko zentzua existentziak berak. Bildu ditu besoak eta bildu ditu hankak, itxi ditu begiak eta leihotik sartzen den kanpoko udaberri usainean hartu du babes. Bidaltzera ausartuko ote den ez dakien gutun bat dago mahai gainean eta, jakin badakigu, gutunak irakurtzeko idazten direla, aldebikoak direla eta, hala



IL 23

ez badira, zentzua galtzen dutela. Letra azkar baina ziur batekin idatzi dio gutuna Ak Bri, ohi duen bezala hasiera esaldi absolutu batekin apainduz. Egia egiago bihurtzen duten horietako batekin. Charles Dickensena kasu honetan. Irakurle zolia izateaz harrotu da:

“A word in earnest is as good as a speech.”

"Mundu guztiak dakien bezala hitzek sosegua eskaintzen diete gure ezinegonei. Zuk eta biok ere badakigu horrenbeste, jende guztiak dakienaren jakitun gara eta, hala ere, ez dut asmatu hitz egokirik bilatzen. Hitzak egon badaudelako, baina ez dira beti aurkitzen.

Zuk isiltasunaren alde egin izan duzu maiz. Nik ez dakit barbarik bilatzeko ahaleginik egin duzun. Ni baino hitzontziagoa izan zara beti, nire aldean ipurdiko hotzik apenas izan duzu, eta egon garen apurretan zeu izan zara gaiak atera dituen, elkarrizketari freskotasuna eman diona. Baldarra izan naiz beti naturaltasuna eta berezkotasuna simulatzen. Agian izan da ez dudalako oraindik ikasi nagoen horretan egoten, errealitateari datorren bezala atxikitzen eta malgua izaten. Esan beharko nituzkeenetan pentsatzen pasatzen zait denbora, eta ahalegin horietan ihes egiten dit aldarteak ere. Hargatik betetzen genuen denbora egunerokotasuneko elkarrizketekin edo zuk proposatutako gaiekin. Beti gugandik aparte zeuden gaiak, zu eta ni ginen hori gurutzatzen ez zutenak.

Nire barruan hain ondo egituratutako esaldi perfektuek hauspoa galtzen dute hitz-totelka hasten naizenean. Deserosotasun eta lotsa horri aurre ez egitearren, eztarrira iritsi orduko irentsi ditut berbak, tripetako mina egin zaidan arte. "Jan ditudan hitzek jaten naute orain ni". Kontu jakina da hori ere, baina hortxe ditut berbak, tenia goseti baten antzera, tripa barruak jan eta jan. Pentsatu dut idatziz errazagoa izango zela botaka egitea, barruko koko-harra kanporatzea eta behingoz sosegatzea. Nahiko lan dut, baina, hitzak bilatzen. Ze nik ez dakit noizbait hau irakurriko

duzun eta, orduan, ez dakit zenbateraino suizida izan daitekeen sintzeritatea anbizio handiegiz praktikatzea. Zeuk irakur dezazun idazten dut, esan gabe doa; eta ez zaitut engainatuko, zure erantzuna bilatu nahi dudalako ere bai. Zure hitzak jaso, barneratu, neure egin eta dakidan hori esan diezadazula. Zure ahotik entzun nahi dut aspalditik usnatzen dudana. Dakidan arren, esadazu; mina bakean pasatzeko baino ez bada ere. Gure arteko harremanari mugarri bat jartzen ari naizela jakin badakit. Ez naiz ari ezer berririk deskubritzen, ez dakigunik esaten edo errebelazio handiustekorik egiten. Gertatu denari, sumatu dugunari hitzak ematen baino ez naiz ari. Behingoz hitz egiteko ausardiarik batzen ez dugun artean ezer gertatu ez balitz bezala engainatuko ditugu geure buruak. Baina gorputzak jakin badaki ze emozio bizitzen dituen, ze sentipen gailentzen diren eta zenbat ilusio zanpatu daitezkeen. Eta nik gorputzak dakien hori bion kontakizun konpartitu bat izatea nahi dut, behingoz gerta dadila gertatu beharrekoa. Kontu jakina baita gauza batzuk esan arte ez direla gertatzen. Inolako azalpenik barik urruntzen hasi zinen. Esan gabeko hausturak, komunikatu bako jarrera aldaketak. Noraezean geratu nintzen ni, zer egin eta zer pentsatu ez nekiela. Urruntzen hasi zinen arren, hor jarraitu nuen nik temati. Tematiegi, ziurrenik. Eta, mundu guztiak dakien bezala, guk ere jakin badakigu neurritasuna dela bertute gorena, izatez orekatzailea. Baina harreman bat gehiegi desorekatzen denean edozein aldetatik lehertu daiteke, txikizioak eragin, injustizia emozional baten biktimak bilakatzen gaitu. Ardura afektiboaren definizio konpartitu bat behar dugula pentsatzen dut, hilotz emozionalak pilatu ez daitezen. Ez duzu uste? Nirekin ados egongo zarela pentsatu gura dut. Hala sentitzen dut, eta hartzen duzun jarrera oro zilegi izango bada ere, konturatu behar dugu gure harremanak norabide bikoak direla, eskutitzak bezala. Beraz, erantzunik gabe gelditzen banaiz, ulertu beharko dut, honezkero ulertu ez badut, isiltasunek berbek baino gehiago hitz egiten dutela batzuetan”.



OLERKIAK



AMETS SANCHEZ ONAINDIA

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



IL
-23

ZER DA HILTZEA?

Zer da hiltzea?

Hiltzea zure biriekin
azken hatsa egitea da.

Hiltzea izarren artean
leku bat edukitzea da.

Hiltzea zure gorputza abandonatzea da.

Denon beldurra da
lo sakon-sakon batean murgiltzea
eta inoiz ez itzartzea.

Zure lagun eta familiarengatik
urruntzea da hiltzea.

Baina, denok hilko gara,
batzuk besteak baino lehenago
eta ezin gara beldurrarekin bizi,
bizitzak aurrera egiten duelako.

Disfrutatu bizitzaz ahalik eta gehien
eta bete zure ametsak
ahalik eta azkarren.



E U
S K A
R A

OLERKIAK



PAULE BARRUTIA NARBAIZA

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -



ZALANTZAK

Bizitza zalantzaz beteta dago.

Beti aukeratu behar dut zerbait!

Nora joan...

Zer jantzi...

Zer egin...

“Aukeratu” esan eta izutu egiten naiz.

“Bata edo bestea” esan eta ikara sentitzen dut.

Beldurra izaten dut aukeratzeko,
beldurra batekin bakarrik geratzeko.

Burua apurtzen dut aukeratzeko,
burua apurtzen dut bati ezetz esateko.

Ez da erreza niretzat aukeratzea,
ez da erreza niretzat zalantzak izatea.

Jendeak ez du ulertzen,
jendeak arraroa dela uste du.

Amets gaizto baten barruan nagoela iruditzen zait,
hortik ezin naizela atera sentitzen dut.

Amets gaizto honetatik esnatu nahi dut,
hemendik atera nahi dut.

Ez dut aukeratu nahi.
Ez dut zalantza gehiago izan nahi.



E U
S K A
R A

OLERKIAK



LORE SANCHEZ ONAINDIA

Akzesita 13 – 14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



II₂₃

BERARENTZAT

Nik pauso bat,
zuk pauso bi.
Nire bihotzak taupada bat,
zure bihotzak taupada bi.
Ni lurrera erori,
zuk ni altxatu.
Nik arnastu,
zuk nire arnasa gorde,
bukatu ez dadin.
Ni pozik egon,
zu pozago jarri.
Nik barre bat egin,
zuk nire barrea disfrutatu.
Nik negar egin,
zuk nirekin batera
malkoak isuri.

Beti zaude nire aurretik,
nik estropezu ez egiteko.
Beti gordetzen duzu nire bihotza
munduko altxorrik preziatuena
izango balitz bezala.
Beti zaude ni salbatu nahian,
ni babestu nahian.

Eskerrik asko
niregatik eman duzun
pauso bakoitzagatik.
Eskerrik asko
niregatik eman duzun
arnas bakoitzagatik.
Eskerrik asko
nor naizen erakutsi izanagatik,
galduta nenbilenean
eta ez nenbilenean.

Eskerrik asko
nire bizitzeko gogoa
mantentzeagatik.
Eskerrik asko
hor egoteagatik,
nire buruarekin
gerran nenbilenean.
Eskerrik asko ilargia, eguzkia eta izarrak
emateagatik.
Eskerrik asko eman didazun guztiagatik.
Eskerrik asko
nire irribarreen eragile izateagatik.
Hau zuretzat da.
Eskerrik asko,
ama.



E U
S K A
R A

OLERKIAK



JONE BERRIZBEITIA MUNITXA

Irabazlea 15 – 16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



IL-23

LAPURRETA

Ez diot denborari pasatzen utzi nahi.
Sasoi batean izan nintzen haurrari tinko eutsi nahi nioke,
egunen igarotzetik babesteko nire burua.

Denboraren joanak erauzi zidan
garai bateko inozentzia
eta munduaren gordintasuna erakutsi zidan trukean.

Erdeinuzko begirada artean ito zuen
nire algararik ozenena,
irribarre xalo eta lotsati batekin ordezteko.

Itzali zizkidan
begietan nituen bi txinpartak
eta mesfidantzaz bete zizkidan ordainetan.

Lapurtu zidan
olgeta hutsa zen bizimodu hura
eta etengabeko norgehiagoka batean murgildu ninduen.

Hartu zituen beretzat
hitz goxo guztiak
eta niri orro eta liskarrak baino ez zizkidan utzi.

Kendu zidan
umeez izan ohi duten gardentasuna
eta izakera benetan korapilatsu bat oparitu zidan.

Eraman zituen berarekin
maite nituenak,
zauri sakon bat utziz haien lekuan.

Gauza bat bakarra geratzen zaio osteko denborari:
nire gorputza, errukirik gabe hustu duena, mamin gabeko oskol bat utzi
arte.

Baina hori ere harrapatuko dit egunen batean.

Hainbat hobeto.

Orduantxe berreskuratuko ditut garai bateko
inozentzia,
barre algara,
begietako txinpartak,
olgetak,
hitz goxoak
eta errotik atera zizkidan beste gauza guztiak.



OLERKIAK



HELENA BARRENETXEA FERNANDEZ

Akzesita 15 – 16 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -



ZOAZ LASAI AMAMA

Gure amama
Emakume zoragarria.
Aitona-amonek
Betirako izan beharko luketen
teoria berresten duena.

Txikitatik ikusi zaitut barrezka.
Atea zabaldu
Eta han ikusten gintuzun.
Musuak eta besarkadak, eta jarraian:
Nor da gose?

Begiak itxi ditut
Eta egongelan ikusten zaitut.
Pasapalabra telebistan.
Kafe egin berria
Eta hiri erdia elikatzeko askaria.

Baina gaur
Nekatuta ikusten zaitut.
Hegan hasteko gogoz.
Ireki hegoak,
Ez begiratu atzera.

Zoaz lasai,
Nik zainduko ditut.
Zoaz lasai,
Hemen ondo egongo gara.
Zoaz lasai,
Ez zaitugu ahaztuko.
Zoaz lasai,
Paperezko ontzi bat bezala
Olatuei amore eman diena.
Itsaso hauetaz nekatu dena.
Eta zoritxarrez,
Burrukan jarraitzeko indarririk gelditzen ez zaiona.



E
U
S
K
A
R
A

OLERKIAK



KIMETZ
LÓPEZ DE ETXEZARRETA CASADO

MARA
SAN JUAN MARTÍNEZ

Irabazleak 17 – 18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -



EZIN IHARTUKO PERLA

Mendi berde eta itsaso artean barrena
aurkitu zuen gure gizarteak hastapena
apurka-apurka eraikiz gaur egun garena
gure historia munduan misterioitsuena.

Lur liluragarrian ditugu bi hots nahasiz
mendeak zehar batera pilpiratuz haziz
herritarren umeak maitasunez irakatsiz
ezin ihartuko perla honen alde garrasiz.

Euskararen aztarnak izkribuetan batuak
euskaldunok ez genituen batere ahaztuak
“sorioneku”z bagenituen sustraiak lotuak
arbasoek gu behatzen gintuzten harrotuak.

Kanpokoak direnak harrapatu bezain
laster gure hizkuntzarekin eskutaketan jolasten
gorroto arrotzaren triskantza ez da ahazten
tiroen hotsek oraindik mina gogorarazten.

Denbora luzez jeltua izan den hizkuntzak
azantzaz egiten du bere arrastoetan dantza
grin izekiz igurikatuz haren hobekuntza
senperenaz saiatzen baita haren berpizkuntza.

Iraganera itzultzearekin amesten
oroiminez une hobeak ditugu gomutatzen
lehenago egon zirenen apurrak aztertzen
ahantzuran ez jauztearen ardura betetzen.

Euskal hiztunena den sorterriaren enborra
baita hizkuntzen maitaleak direnen altxorra
beti erabilia nahiz hiria zein alorra
bentzutu ditu oztopoak, hain da gogorra.

Folklorearen bidea markatzen duen hatza
zergatik izan behar du hain egoera latza
euskara da giza lotura ooren ardatza
belaunaldiz-belaunaldi gure iparorratza.

Historia ondorengoei pasatzeko zama
idatzia gure sehaska kanten pentagraman
txikitatik entzundako bertso guztien ama
bitxia da euskarak duen panorama.

Bilatu diezaiogun borrokari zentzua
aukeratuz euskararen koloreko patua
altxa dezagun guztiontzat gotorlekua
kultura defendatzeko kontzientzia batua.

Elkarrekin higitzen euskal hizkuntzaren alde
batu ditzagun Iparralde eta Hegoalde
euskal herritar guztiok egingo dugu talde
gure hizkuntz ederra galdu ez dadin debalde.



OLERKIAK



IÑIGO LEGORBURU ARREGI

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



ZORIONEKOAK GU?

Jada dena asmatua zegoela jaio ginenekoak gara,
garenak baino, izatekoak gaudenak
berriak ez ginen jaio, soilik berriki munduratu,
globalizatu
koordinadaz haragoko frustrazioaren lurretan
mundua aldez aldatzen ikusiak garenok.

Intsumisioa, ikastolak, auzolana
euskara bat(zart)uan jaso ditugu
eta euskara zartatuan,
hitza elkarrri kenduta, hitza janez elkarrri eta zin eginez
eta underground mugimendua gara egun
lurperatuak garenok, galderak leku egokietan kokatzen ditugunok.
“Dena daukazue eta guztia duzue lortzeko”... Agian, iraganean?
patu berri bat zain kriptotxanponen ifrentzuan gaudenok.

Zoriona eskuz esku jaso ahala
kanpo indusketa baten emaitza bailitzan
Sorionleku izan nahi genuke, gugan
bigarren eskuko produktuak, *mainstream* ditugunak.

Eklektikoa zena, elektrikoa da egun
eta Arestiren *Herri eta harri*, Zetak-en agertokian dago,
limurtzen gaituen zakartasunean.
Irulegi ez da hiru alegi baino gehiago
ahalegin baten trinitate santua
gaztelu gotortu baten bakardadea,
historiaren lautada baten hegian egonkortua
dena ikuskizun eta ikuskizuna berau, aldi berean.

Garaileei denborak katramilatzen zaizkie
eta garaian garaiko transgresioa eraberritua
tradizional bihurtzen du geroak.

Begiratzeak, begiradan asmatzeak datza
ikusmenak ukitzen dituen erretaula kimerikoetan
sumatzen den hura badela gezurtatzea
haizeak dakartzan silaba hotsek
aireratu gaitzaten lurralde ezinezkoetara.
Arrakalek erakusten digute bidea
eta gutartasun likido honetatik
soluzio argirik ez du norbera den hieroglifikoak
idazteke dagoen azkeneko esku-orrian
algoritmoak, hitza duelako.

Gorputzak gintuen atzo, gaur gorputzaldiak
gauak argitasun osoz irakatsi zigunez
tunelean bidea egitea zela irteera
maitatzea, munduarekiko ezkutaketan jolastea zen
inperioei, arrotz sentiaraztea
eta zorionekoak ginen bitartean
hala ginenik ere ez jakitea.

Basoen arteko kale sigi-sagatsuetan
iraunkortasunaren jainkosak denbora gelditu du
ameslari izatea amets bat soilik den honetan
dena bego horretan.

Eta Baumann balio solido bakarra da horrela
diktadura berrien menpe gaudelarik,
kontsumatzen gaituen kontsumismoak
une oroko katarsi eternaletan barrena
katakunbetako konformistok Midas Errege berriaren esku
pozetik ihesi diktaduraz diktadura garamatza:
Zori on peko.



E U
S K A
R A

BERTSOAK



GORKA FONCEA BARBARIAS

Irabazlea 11 – 12 urte bitartekoen sailean

- San Antonio ikastetxea -



TXOMINEN GARAIAK

Bidean ikusi dot
Txomin bizikletan
arraroa egin zait
ez nabil brometan
batera ta bestera
dabil lasterketan
zuei irabazteko
beti ametsetan

Neka-neka eginda
joan da ortura
izerdiz goitik bera
nolako itxura
kirola ona baina
ez dauka ohitura
kalte egingo dio
eguzkiak burura

Inoiz ez dot ikusi
halako atleta
lasterka etorri da
jotzen pandereta
kaletik danak datoz
entzuten tronpeta
plazetako tabernak
gizonez beteta



BERTSOAK



OIER SARRIONANDIA TURUMBAY

Akzesita 11 – 12 urte bitartekoen sailean
- Landako eskola -



IKASTURTE AMAIERA

Doimua: agur adiskidea

Lehenago eskola zen
ikasle itxitura,
ez dut gogoratu nahi
ikasturte hura.
Nire ikastearen
iritzia aldatu da,
urte hau ikasteko
izan dela onura,
ikasturte polit hau
bukatu zaigu ba.

Klaseak, azterketak,
lagunak, tristura,
urtea gogoratzen
sartzen zait logura,
baina hori ahazteko
ordua heldu da.
Klaseekin ezin denez
joan nahi den lekura,
eskola ez dago gaizki
baina hobe uda.

Urtea ona izan da
baina ez tristatu,
hurrengo urtean denok
ahalko gara batu,
bi hilabete barru
batera jostatu,
eta horren aurretik
oporrak gozatu,
famiarekin egon
ta ondo pasatu.



BERTSOAK



IKER FONCEA BARBARIAS

**Irabazlea 13 – 14 urte bitartekoen sailean
- San Antonio Ikastetxea -**



TXAKURRA TA LAPURRA

Etxean topatu dut
ostuten lapurra
gorputzean orduan
sartu zait beldurra
Eskerrak heldu dala
Anderren txakurra
erne izaten ditu
begi ta sudurra

Zintzoa izateko
dauka aginduta
baserritik irteten
ez dago ohituta
Jabea egongo da
oso kezkatuta
ikusten duenean
soka puskatuta

Ausarta da benetan
egiteko aurka
haserretzen denean
egiten du koxka
Bapatean hasi naiz
amari oihuka
berehala lapurra
irten da korrika

Gorputz guztia dauka
izerdiz bustita
Pena ematen du
horrela ikusita
Gure artean dago
harreman polita
Sari goxoa-goxoa
dauka merezita




E U
S K A
R A

BERTSOAK



JONE BERRIZBEITIA MUNITXA

Irabazlea 15 – 16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



HAMAĪKAK ETA HOGEĪTA BAT

Doinua: Gure herrian ligatzea

Goizeko zortzi t'erdia
aspalditik dago makal
gero eta ahulago
ohean etzanda argal.
Isiltasuna nagusi
erlojua ia musikal
bihurtu da hileotan
benetan hezur (e)ta azal.

Badira bederatziak
oraindik paparra dabil
astiro gora eta behera
nekez, ez lehen bezain abil.
Sasoi bateko osasuna
denborak dantzan darabil
masail gorrikkak zirenak
daude jada guztiz zurbil.

Hamarrak eta hamazazpi
oratu diot eskua
kasik beldurra ematen du
hain baita delikatua.
Portzelanazkoa dirudi
herioaren estatua
bere orduari itxaroten
izara artean sartua.

Beste ordu erdi-pasa da
hau da hau goibeltasuna
sufrimendua amaitzea
barrean nahi duguna.
Gaztetako begi zoliek
galdu dute ernetasuna
kliskatuz saihesteko
malkoen umeltasuna.

Hamaikak eta hogeita bat
hasi da arnasestuka
eztul (e)ta hasperen artean
amaitzeaz da borroka.
Eman du bere azken hatsa
gorputz osoa zurrunduta
oinazea bukatu da
biok gaude eskertuta.



E U
S K A
R A

BERTSOAK



ARATZ RIVERO ELORRIAGA

Akzezita 15 - 16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -

E U

S

K

A

A

R



BARRENETIK

Hiru-lau bertso para nahi ditut
entzun nahi dizkidanentzat
hitzen batek min egiten badu
mesedez ez hartu txartzat
ikastola ta euskara ditu
nire bizitzak ardatzat
nire etxean entzun nituen
nire lehen euskal hitzak

Txiki-txikia nintzelarik
Pinttoren kanta ikasi,
guraso eta irakasleek
euskaraz ninduten hezi.
Esponjak ura ase bezala
euskaraz blai! Nago kasi;
aurrerantzean zipriztin batzuk
zabaltzea dut gutizi

Aspaldiko ume txiki hura
bihurtu da gizon,
hasierako kabi hartara
itzultzeaz du zorion.
Larrosa lore ederra baina
arantzak mina dit emon
Kurutziagako lore gazteak
erderaz dabiltz edonon

Gela ederrak, leku handia
horra, eraikin berria.
Etorkizuna amestu eta
eragin dit hozkirria:
hogeitau hurrekin gela batean
zein gauza harrigarria,
euskaraz hitz bi, erderaz dena
oi, Babel izugarria

Ametsak amets izan ohi dira
batzutan iragarkia,
guraso eta irakasleak,
euskararen arteria;
geure eskutan daukagu orain
luzaroko haria.
Bihur dezagun, bai! KURUTZIAGA
euskararen legamia



E

U

BERTSOAK

S

K

A

A

R



IRURI ALTZERREKA MARTINEZ

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



ADARRAK

Doinua: Haize begoa gau epela

Geroa idatzi ohi da
presentez, iraganez,
ezaugarritzen nauena
nirekin eramanez.
Ari naiz jaioterriaz,
izenez ta izanez,
daukadan ama hizkuntzaz,
sortutako harremanez
adinaz, ideologiaz
ta hartutako lanez...
Gizakiok osatuta
gaudenez kontraesanez,
denek definitzen naute,
ta aldi berean ez.

Barruko maskara denak
nola bereizi, sailka?
sarri identifikatzen
ere nekeza zait ta.
Unearen arabera
naizenari jarraika,
gero osotasunean
nola norbera maita?
Izan naiteke alaba
laguna edo ahizpa,
bakarra aukeratzea
ezinezkoa baita...
neure barruan kabitzen
dira beste hamaika.

Nola artistak eskuan
hartzen duen pintzela,
izan nahi nuke ahalmen
hori duen zintzela.
Irudikatzeko nire
biririkak zein gibela,
kanpoa ta ezaugarri
bakoitzaren nibela.
Baina berez hau dugunez,
loteria, kiniela...
askotan sentipena dut
ziztada bat bezela,
izan nintekeen horren
bila galdu naizela.

Denbora da kontsumitzen
dioan zigarroa,
baina erosoia izaten
da sarri lozorroa.
Egunero aukeratu
ohi dugu mozorroa,
atzo nintzen tximeleta,
gaur berriz zomorroa...
Aukera bagenu gudan
gordetzeko erroa,
eta desbideratzeko
patuaren lerroa...
Berriz hutsetik hasteko
gure zirriborroa.

Besteen begiradatik
ez al gara arautzen?
Ikusi nahi duten hartan
energia xahutzen.
Ibiltzen gara esaldi
pozoitsuak isurtzen,
gezur erdiak sinisten,
perfekzioa gurtzen...
Auto irudiak sarri
ez al gaitu itsutzen?
Batzuetan nahi nukeena
gorpuzten dut hain zuzen,
bestetan ez dut nire
burua ezagutzen.

Etorkizuneko planak
orri baten zer dira?
ezin badira gauzatu
norberaren neurrira.
Nola egokitzen gara
egoera berrira?
hau ez bada hasieran
izandako desira.
Hurbiltzean kale estu,
arantzadun hesira,
antsietatez murgiltzen naiz
putzu ilun hertsira...
egiteke ditudanen
zerrendari begira.

Bakoitza munduratzten da
bere izen ta abizen,
denboraz bereganatuz
gura beste ezizen.
Bizi ahala ikasten da
mundu hontan bizitzen,
helburuak proiektatzen
ta matazak haritzen.
Geroan joaten garenez
desioak berritzen,
zer pasatuko litzake
bizitza eraikitzen,
atea ixtean ez bada
leihorik irekitzen?

Sinisten den horren alde
eginda apostua,
elkarbanatu ohi dugu
plangintza adostua.
Hautatuz bizitokia
lagunak, lanpostua...
behin-betikoa ote da
paisaia margoztua?
Nola sentitu bizitza
ez zaigula ostua?
Duda konstante bat daukat
barnean zorroztua...
handiegia ez ote
den aukera kostua.

